Pil-pilean
TOKIKOM
Soraluzeko hilabetekaria
2022ko iraila · 390 alea

LANERA AUTORIK GABE

PIL-PILEAN
390
2022ko iraila

Azaleko argazkiaren egilea:
Fernan Oregi.

Aurkibidea

4 **Elkarrizketa** Ana Gil Elorza
6 **Begira** Izkututik bistara
8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
18 **Argazki bidez** Itzulera ezin-hobea!
22 **Erreportajea** Lanera autorik gabe
28 **Kirola** Sorako entrenatzaile berriak
29 **Kultura** Antzerki garaia eta arte erakusketa
30 **Gure artistak** Eneko Alvarez Basauri
32 **Ugaraxo** Ikasturte hasiera
34 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...

IRITZIA
3 **Neuretik** Lorea de Castro Lete *Osasuntsu elikatzea ezin da luxu bat izan*
16 **Gutunak** Alberto Arizaga *Merlin proiektua, zalantza asko*
16 **Komiki tira**
17 **Hausnarketa** Presak bai ala ez?
17 **Puntua** Leire Peñalba *Eskisitoegiak?*

Pil-pilean herri komunikabidea
TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI erreformak
SORALUCE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

SORALUZEKO UDALA

Osasuntsu elikatzea ezin da luxu bat izan

LOREA DE CASTRO LETE

Azkenaldian aktualitatetik deskonektatuta nabil. Lehen notiziak gehiago jarraitzen nituen, izan Twitter bidez, izan telebistaz. Baina berri txarrez saturatuta edo, azkenaldian ez nago hain entxufatuta. Azkenaldian, telebista piztu dudan apurretan, inflazioaz aritu izan dira pantaila barruko pertsonaiak. Dozenaka grafiko eta datuz lagunduta, prezioen gorakadaz eta horren aurrean hartu beharreko ustezko neurriez aritu izan dira. Jakina da prezioak gora eta gora doazela, hortaz jabetzeko ez dago notiziak ikusi beharrik! Poltsikoari erreparatu besterik ez dago! Baina aipatutako datu guztien artetik batek kezkatu ninduen bereziki: azken urtean elikagai osasuntsuak dira gehien garestitu direnak, eta ultraprozesatuak, aldiz, gutxien. Elikagai freskoak duela urtebete baino dezente garestiagoak dira, igoera esanguratsuekin: hegaztien haragia +%17,6, txahal haragia +%14,5, arraina +%11,7, arrautzak +%22, esnekiak +%16, barazkiak +%15,5 eta fruta +%15. Gutxien igo direnak, aldiz, azukrea, ultraprozesatuak eta produktu enbasatuak. Nola da posible sagar bat jatea garestiagoa izatea “donut” bat jatea baino? Aplikatu beharreko ustezko neurrien artean, produktuei salneurri maximo bat jartzeko aukeraz jardun ziren telebistako jakintsuak. Arrautzen salneurri maximoak baserritarrak estutzea badakar, ez nator eta ez naiz bat etorriko neurri horrekin.

Prezioen gorakada deskontrolatu honek eragina du denon poltsikoetan, baina epe luzera osasunean izango duen inpaktua ere kontutan hartu beharko dugu. Eta baliabide gutxien dituzten familiak, alargunak, pentsionistak, etab izango dira kaltetuenak, beste behin. Diru sarrera baxuak dituzten familietako haurrak prekozinatutako pizzez eta paketeko saltxitxez “elikatzera” kondenatu behar al ditugu? Zer eragin izango du guzti honek epe ertain eta luzera gure komunitateko haur eta gazteengan? Obesitatea, diabetesa, arazo metabolikoak, arazo kardiobaskularrak,… hortaz ez da telebistan hitz egiten.

Guzti honen aurrean nik ez dakit irtenbidea zein den, baina argi daukadan bakarra da osasuntsu elikatzea ezin dela luxu bat izan.

"NOLA DA POSIBLE SAGAR BAT JATEA GARESTIAGOA IZATEA DONUT BAT JATEA BAINO?"

“Ea erlojua ere laster konpontzen dugun"

ANA GIL ELORZA KRISTAU KOMUNITATEKO KIDEA
ARGAZKIAK ETA TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

Ana Gil Elorza (Soraluze, 1962) Soraluzeko kristau komunitateko kide esanguratsuenetako bat da eta bere ardurapean daude elizaren jarduneko zeregin gehienak. Abadeak aldatzen dira baina Ana ez.

Zelan dago kanpaien kontua?

Aurten, hiru herritarrek Jon Loiola abadeari kexa aurkeztu zioten (kanpaien hotsagatik). Hasiera batean Jonek erantzun zien hiru pertsonaren kexuagatik ez zuela kenduko, baina gero erlojuak izorratu ziren, orratzak jausi ziren eta dena gelditzea erabaki genuen. Bueno, ba astebete baino lehen hasi zen jendea esaten ea zergatik isildu genituen kanpaiak eta sinadura bilketa ere antolatu zuten; 501 herritarren sinadurak ekarri zizkiguten. Hori ikusi genuenean esan genuen: ba, jendeak nahi du!, eta berriz jartzea erabaki genuen. Hasi ginen berriz martxan ipintzeko ahaleginean, baina ezin, zentralita izorratuta zegoen. Zentralita aldatu dugu: 1.500 euro! Eta gero zer gertatu da? Kanpai handiaren mailua izorratu dela eta, haren ordez, orain kanpai txikien zarata entzuten dela. Laster konponduko dugu eta betiko moduan entzungo da.

Eta erlojua?

Erlojua konpontzeko bertaraino igo behar da eta ikusi behar da zer dagoen izorratuta, orratzak ala estutzen dituzten torlojuak. Bi herritarrek euren burua eskaini dute igotzeko eta horren zain gaude. Ea erlojua ere laster konpontzen dugun, Badakigu herritarrentzat inportantea dela.

Abadea ere aldatu da berriz.

Bai, urtebetean hirugarren abadea izango dugu. Luisek hemeretzi urte egin zituen herrian eta Aretxabaletara bidali zutenean pena handia eman zigun, herrian lan handia egin zuelako. Gero Jon Loiola bidali zuten, baina bagenekien urtebeterako izango zela. Orain, Bitoriano Etxabe etorri zaigu Arrasatetik eta Soraluze eta Elgoibar hartu ditu. Itziartarra da, baina Arroa auzoko baserri batean bizi da eta hara erretiratuko da. Abade gutxi dago eta dagoena berrantolatzen dihardute.

Zelan eragiten du horrek parrokiko antolaketan?

Gaur egun abadea aldatzeak ez dauka garai batean zuen eraginik. Gaur egun, erabakiak taldean hartzen ditugu. Aldaketa hori Luisek ekarri zuen eta ordutik horrela funtzionatzen dugu. Caritasen bi pertsona daude eta aisialdiko taldea ere badago, Erregeen kabalgata antolatzen duena. Gainerako guztia neuk eroaten dut abadearekin batera: katekesia, sendotza, liturgia... eta garbiketak ere bai! Guztira dozena erdi bat lagun gara lan egiten dugunak. Jendeak ez du nahi konpromisorik hartzerik. Beste arlo batzuetan ere gertatzen da hori.

Ahots askok diote elizak eguneratu beharra daukala.

Elizak zabaldu beharra dauka, noski, baina zein da zabaldu behar dena? Eliza ala elizan gauden pertsonok? Zeren eliza pertsonok osatzen dugu. Denean bezala, badira jende multzo batzuk kristautasuna lehengo erara bizitzea nahi dutenak eta beste batzuk gauza berriak nahi ditugunak. Nik uste dut azken urteotan gauza asko aldatu direla, katekesia emateko modua gurasoak inplikatuz, domeketan meza familiarrak soinuarekin umeendako… Baina hori kalean ez da ikusten.

Emakumeen parte-hartze handiagoa ere aldarrikatzen da.

Emakumeen parte-hartzerik barik eliza ez litzateke existituko, ez gaur eta ez lehenago. Gehien parte hartzen dugunak, bai elizan eta bai lanean, emakumeak gara parrokia guztietan. Burua abadea dela? Gizonezkoa dela? Bai, baina lana emakumeok egiten dugu.

Zuk uste duzu hori aldatuko denik?

Ez, nik ez dut uste aldaketa hori ezagutuko dudanik. Oraingoz ez.

Beraz, ez zaitugu ikusiko zu meza gidatzen?

Dagoeneko emakumeok liturgia eta elizkizunak ematen ditugu, baina ez dugu kontsakratzen.

Izkututik bistara

ARGAZKIA ETA TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

Joan zen zapatuan Baso Biziak plataformak, Lurgaia Fundazioak eta Udalak deituta, hogeitabosten bat herritarrek ibai ertzak garbitzen jardun zuten. Zer ez zuten topatu bertan: amiantozko hodiak, bizikleta zahar bat, bide seinale handi bat, zigarro mutxikinak eta haien tabako paketeak, arropak esekitzeko pintzak, latak, zepiloak eta plastikoa, batez ere, plastikoa. Ibai ertzean azterka hastea nahikoa da denetariko zaborra topatzeko, ostera, distantzia apur bat hartuz gero, apenas ikusten den ezer. Horren harira, aipagarria da boluntario batek egin zuen gogoeta: "gure sistemak zaborra sortu ahala izkutatu egiten du, desagertu egiten da, baina gure begien bistatik bakarrik". Hain zuzen, horixe izan zen joan zen zapatuan Soraluzen eta beste hainbat herritan egin zen ekimenaren helburua: zaborra bistaratzea, geure zaborra.

Herritarrak eta politikariak Plaza Berriko elkarretaratzean, eguaztenean.

Gaitzespen irmoa hilketarengatik

Genero Indarkeriaren Kontrako Gobernu Ordezkaritzak baieztatu du Maria Luisa Larrañagarena hilketa matxista izan zela

Eguazten iluntzean, soraluzetar ugarik bat egin zuten Maria Luisa Larrañagaren hilketa matxista gaitzesteko elkarretaratzean. Herritarrekin batera izan ziren orotariko ordezkari politikoak, besteak beste, Soraluzeko Udaleko zinegotziak eta alkatea; Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua; Izaskun Landaida Emakundeko zuzendaria; Miren Elgarresta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako zuzendaria eta Rebeka Ubera, EH Bilduko Legebiltzarkidea.

Soraluzen ez ezik, Elgoibarren, Zarautzen eta Benidormen, Maria Luisa Larrañagak bizitoki izan zituen herrietan, ere egin dituzte protesta ekimenak asteon. Benidormen, esaterako, egun bateko dolu eguna dekretatu zuten eta Les Corts Valencianes erakundean minutu bateko isilunea gorde zuten diputatuek.

Senarrak bere buruaz beste

M.L. Larrañaga 68 urteko soraluzetarra irailaren 25ean aurkitu zuten hilda Benidormeko etxean, bularrean bi sastakada zituela. Espainiako Polizia joan zen haren etxera, 73 urteko bere senarra istripu batean hil zela jakinaraztera. Etxeko atea zabalik eta etxean soraluzetarra hilotz aurkitu zuten. Poliziak hasieratik susmatu zuen Larrañaga senarrak hil zuela eta gero bere buruaz beste egin zuela autoan. Genero Indarkeriaren Kontrako Gobernu Ordezkaritzak martitzenean baieztatu zuen hilketa matxista izan zela.

"Zure irribarreak gurekin segituko du"

Maria Luisa Larrañagaren Soraluzeko lagunek honako agur mezua helarazi nahi izan diote Maria Luisari: "Joan zaren arren, zure irribarreak eta alaitasunak gurekin segituko du. Elkarrekin bizi izan ditugun momentuak ez ditugu sekula ahaztuko. Betirako egongo zara gure bihotzean".

Dolmenak ikusteko azken bisitak

Urrian bukatuko dira Dolmenen Ibilbidea ezagutzera joateko aurtengo bisita gidatuak. Lehena, urriaren 2an izango da eta azkeneko bisita, berriz, urriaren 9an. Parte hartzeko aldez aurretik izena eman beharra dago 657 79 46 77 telefonoan edo Debabarrena Turismoren webgunean dagoen formularioa beteta.

"Ahalegina egin eta neuk zabalduko dut"

LUIS ARIZNABARRETA EDURTZAKO UGAZABA

Gaur, irailak 30, 19:00etan zabalduko dute Edurtza. 20:30ak arteko kontsumizioak pintxo-pote modura aterako dituzte eta gero "normaltasunera" bueltatuko da apiriletik itxita dagoen Santa Ana kaleko taberna.

Berritasunekin dator Edurtza?

Bai, adibidez, logo berria dugu. Leku askotan begira ibili ondoren, E letrarekin eta sardexka batekin ostatu dugu, modernizatzeko. Edurtza jatetxea ere badenez, ba hortik dator sardexkarena. Horrekin batera, taberna osoari garbiketa sakona egin diogu eta margotu ere egin dugu.

Langileak ere berriak izango ditu?

Barran Fanny eta ni neu izango gara eta sukaldari modura orain artekoak jarraituko du. Egunero zabalduko dugu 10:30ean, itxi arte. Terraza, berriz, astegunetan 15:00etatik aurrera ipiniko dugu, hemen dagoen parkinga dela-eta ezin dugulako lehenago jarri. Zapatuetan 12:00etarako eta domeketan,berriz, zabaldu eta berehala.

Zer eskainiko du berritutako Edurtzak?

Luis Ariznabarretan taberna kanpoan.

"PINTXOAK IZANGO DIRA INDARGUNEETAKO BAT ETA DOMEKETAN PINTXO ESKAINTZA BEREZIA IZANGO DA"

Taberna eta jatetxe zerbitzuak, biak. Jatetxeari dagokionez, astean zehar, bazkalordurako plater bakarrean oinarritutako menuak izango dira. Asteburuetan, berriz, afariak eta enkarguak, biak emango ditugu. Horrez gain, karta ere izango da, baita kazolatxoak, pintxoak eta ogitartekoak ere.

Eta tabernari dagokionez?

Argi dago asteburuetako gauak gazteenak direla, beraz, eurei zuzendutako sorpresak izango dira. Osterantzean, orain arte moduan, pintxoak izango dira gure indarguneetako bat eta, besteak beste, domeka goiz-eguerdian eskaintza berezia egongo da pintxotan.

Zuk zeuk lanari laga diozu hona bueltatzeko. Zer dela-eta?

Batetik, ikusita herria zelan dagoen eta bestetik, ez nuelako taberna itxita laga nahi. Biak batuta, erabaki nuen ahalegina egitea eta neronek zabaltzea taberna, kale honi ere zelanbaiteko bizitza emango diola pentsatzen dut, argitasuna… Egia esan, ilusioarekin nator!

Gainera, zuk ondo dakizu zer den hemen lan egitea…

Bai, 1983tik 2000ra arte izan nintzen hemengo arduradun eta langile. Harrezkero, 22 urte pasatu dira, badakit gauzak aldatu direla baina badakit, baita ere, zer den tabernako lana.

Besterik nahi duzu gaineratu?

Eskerrak eman nahiko nizkioke atzean lanean ibili den Rosa nire bikoteari, demaseko logistika lana egin du eta batzuetan bera ere azalduko da barran. Eta familiari ere bai, bere ulergarritasunarengatik.

Edurtza
Etorri eta gozatu!
661 87 45 52 · 843 63 15 76
Pintxoak, razioak, ogitartekoak, hanburgesak
Bazkari eta afariak aurrez enkargatuta
Astelehenetik ostegunera eguneko menua
Eroateko ere bai

Eolikoak mendian ipintzearen kontra

Soraluzeko, Elgoibarko eta Bergarako udalek zein Karakate Bizirik plataformek ekarpenak aurkeztu dizkiote zentral eolikoaren aurreproiektuari

Karakaten eraiki nahi duten zentral eolikoaren proiektua Ingurumen Inpaktuen Ebaluazioari dagokion prozesu administratiboan dago. Eusko Jaurlaritzaren Garapen Ekonomiko eta Jasangarritasunerako Departamenduak abuztuaren 2an jarri zuen ikusgai Green Capital enpresa madrildarrak aurkeztu duen hasierako ingurumen txostena eta hilabeteko epea ezarri zuen hari ekarpenak egiteko.

Besteak beste, Green Capitalen aurreproiektuaren arabera, Elosutik garraiatuko lituzkete eolikoen piezak, horretarako, mendi gainean zehar 5 metro zabal eta 8 kilometro pasatxo lituzkeen errepidea eraikiz. Halaber, jakinarazi zuen, bi dorre eolikoekin batera, hirugarren dorre bat ere eraikiko duela, metereologikoa, 101 metro altu izango dena.

Legez babestutako eremua

Hasierako ingurumen txostenari ekarpenak egin dizkiete Soraluzeko, Elgoibarko eta Bergarako Udalek, eta Soraluzeko eta Elgoibarko Karakate Bizirik plataformek, tokian tokiko mendi taldeekin batera (ekarpen guztiak Plaentxia.eus-en daude ikusgai).

Ekarpen gehienetan bat egin dute erakundeek zein plataformek, Karakate-Irukurutzeta mendilerroak dituen balio geologikoak, ekologikoak, arkeologikoak eta paisajistikoak azpimarratuz, eta gogora ekarriz eremu horrek askotariko babes eta izendapenak dituela legez ezarrita, hain justu dituen balio horiengatik. Horren ondorioz, adierazi dute bertan zentral eoliko bat eraikitzea bateraezina litzatekeela eremuak aitortuta duen babesarekin.

Herritarren plataformek gaineratu dute, esaterako, enpresaren hasierako ingurumen txostena abuztuan publiko egin izanak herritarren informaziorako eskubideari buruzko hainbat hitzarmenek diotena urratzen duela, eta ingurumenari eta biodibertsitateari eragingo lizkiokeen kalte asko ez dituela jasotzen. Oro har, ingurumenarekiko zorroztasun falta egotzi diote enpresaren txostenari.

Urriaren 12an agerraldia

Karakatekoaz gain, Gipuzkoan atzerriko enpresek hainbat zentral eoliko egiteko bideari heldu diotenez, herrietan proiektuok geldiarazteko taldeak sortu dira eta lanean dabiltza. Guztien artean Gipuzkoako Mendiak Aske izeneko taldea osatu dute elkarlanerako eta deialdia luzatu diete herritarrei urriaren 12an Elosun "zentral eolikoen kontra eta mendien alde" egingo den agerraldian parte hartzeko.

Aitortza egindako lanarengatik

Udaletxeko areto nagusia jendez lepo zela, Pedro Larrañaga Mujika zientzialariari omenaldia egin zion Soraluzeko Udalak, bere ibilbide profesionalarengatik. Eskerronez, pozik eta hunkituta agertu zen Larrañaga. Familiarekin bertaratu zen eta Banderatrapo kuadrillako lagunak ere ondoan izan zituen.

MGS Seguros
Veronica Galarraga
Gertukoa
eta segurua
Astelehenetik ostiralera:
10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30
Santa Ana 13
665 744 055

KM design
Kiru Muntatak
Diseinu eta Fabrikazio lanak
Sukaldeak
Horma-armairuak
Logelak
Zoruak
Arotzeria lanak oro har
Instalazioak
943 76 99 85
kirumuntatak@yahoo.es
www.kmdesign.es
Pol. Amilloga 5
BERGARA

Soraluzeko
Kooperatiba Elkartea
1910etik zabalik
Arraindegia, janaria,
errepak., etxeko tresnak,
etxera eramateko zerbitzua
Kalebarren 4
Tel.: 943 75 13 45
Astelehenetik ostiralera:
09:30 - 13:30 eta 17:00 - 19:45
Larunbatak: 09:30 - 13:00

HNOS. BENITO
ANAIAK
MUEBLES-ALTZARIAK
Sukaldeak, logelak, egongelak,
neurrira egindako altzariak...
Santa Ana, 26 - Tel.: 943 75 20 47

MABEL
ILE-APAINDEGIA
· Laser depilazioa
· Keratina tratamendua
· Solariuma
Errabal 1
Tel.: 943 75 14 89

bertako
igogailuak | ascensores
-REKIN BAI!
GIPUZKOA
943 903 450
OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko
• Boietz mantentze-lan profesionalari
• Boietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
www.bertako.eus

Zerbitzuak hobetzeko eta gizarte-politika
hobeak izateko ticketa. BAI.
TicketBAI, Gipuzkoa osoa batzen duen
tresna aurreratua eta solidarioa, etorkizuneko
erronkei aurrea hartzeko.
gipuzkoa.eus/ticketbai
TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA
Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa
ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

PUBLIZITATEA

Bidelagun euskaltzaletasunean

somabe Supporting your projects · aras · ALBISUA S.L. · laibi ELECTRICIDAD

Ramon Bereikua misiolaria hil da

Bereikuak 54 urte eman zituen Asian, 9 Sri Lankan eta 45 Japonen, hezkuntzan, irakasle zein zuzendari lanetan

Ramon Maria Bereikua Basauri irailaren 1ean hil zen (Soraluze, 1931-Lardero, 2022) 90 urterekin. Misiolaria bokazioz, Bereikuak 74 urte eskaini zizkion erlijioari Anaia Maristetan. Besteak beste, 54 urte eman zituen Asian, Japonian batik bat, Koben eta Kumamoton, irakasle zein zuzendari lanetan. 2018tik, berriz, Errioxan bizi zen, osasun kontuengatik etxetik gertuago egoteko.

Ramon Bereikua.

"Ondare ahaztezina"

Bereikuaren azken agurrean, besteak beste, Kobeko (Japonia) maristen komunitateko oraingo nagusiak kontatu zuen Ramon Bereikua "oso harro" zegoela jaioterriaz, Soraluzez. Elkarrizketa batean zera esan zuen, adibidez: "Armaginen semea izanik, bolbora eta lehergai asko ditut DNAn".

Soraluzeko eskola maristetan ikasi ondoren haien bideari jarraitzea erabaki zuen eta 19 urterekin jada Asian lanean ziharduen, Sri Lankan. Letretan lizentziaduna zen eta, besteak beste, hizkuntzalari aditua. Zazpi hizkuntza zekizkien, 2006an Pil-pilean aldizkariari 130. alean kontatu zion moduan, "hurrenkera honetan: euskara, gaztelera, frantsesa, italiera, ingelera, ceingalesa eta japoniera" eta gogotik egin zuen lan hezkuntzan, bere bihotza lapurtu zuen Japonian."Milaka dira bere ondare ahaztezina jaso zuten ikasleak. (…) Japonia maite zuen eta lagun asko zituen zirkulu katolikoetan, erlijiosoetan eta hezkuntzarekin lotutakoetan (…) anaia marista on moduan izango dute gogoan".

Jakinmin handia

Soraluzeko familiari dagokionez, berriz, emozionatu egiten dira Bereikua anaiarekin oroitzean, haren adeitasuna eta, batez ere, haren jakin-mina nabarmentzen dute. "Beti zebilen zerbait ikasten edo zerbait ikasi nahian, hizkuntza kontuak, liburuak, abizenen jatorria… jakin-min handia zuen, baita bizitzako azken urteetan ere. Familiak zortea izan du eta gertutik bizi ahal izan ditugu bere azken urteak".

Presen hitzaldia martitzenean

Datorren martitzenean, Merlin proiektuaren baitan herrian presak kentzeko dagoen asmoa azaltzeko hitzaldia eskainiko dute, arratsaldeko 18:00etan hasita, Toralekua aretoan. Hitzaldia herritar guztiei zuzenduta dago eta bertan izango dira Gipuzkoako Foru Aldundiko, EHUko eta Urak Agentziako ordezkariak. Presak botatzeko zein arrazoi ikusten duteneta hori nola egitea aurreikusten duten. Etorkizunean, Udalak hartu beharko du presen gaineko azken erabakia.

Metanoa neurtzen

Aste honetan, EHUko Ibai Ekologia taldeko ikerlariek ibaian dagoen metano eta CO2 maila neurtzen jardun dute. Neurketa hauek Merlin proiektuaren baitakoak dira "etorkizunean presak botako balira, metano mailak konparatu ahal izateko". Martitzenean presetako metano maila neurtu zuten eta eguaztenean, berriz, presetatik kanpoko guneetakoa.

Ibaiko metano eta CO2 maila neurtzen.

Debabarrenean, hitzetatik ekintzara

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra arte egingo da Euskaraldia eta Debabarreneko herri-batzordeak ekimenerako prestatzen hasi dira. *Hitzez ekiteko garaia* da edizio honetako leloa eta, horregatik, hitzetatik ekintzara pasatu dira eskualdean.

Euskaraldiaren hirugarren edizio honetan ere *ahobizi / belarriprest* dinamika erabiliko da eta, norbanakoez gain, entitateek ere hartuko dute parte ariguneak osatuz; hau da, entitateetan (denda, taberna, talde, elkarte, erakunde, zerbitzu, enpresa...) euskaraz lasai aritzeko identifikatzen diren guneak.

Aurtengo helburu nagusia ariketaren eragina handitzea da. Horrela, alde batetik, norbanakoek eta entitateek euskarazko praktikak hedatzeko urrats berriak egitea espero da; eta bestetik, *ahobizi, belarriprest* eta *arigune* gehiago izatea.

Parte hartu nahi duten entitateek maiatzetik dute zabalik izena emateko epea eta norbanakoena irailaren 28an hasi zen. Izena emateko, aurreko edizioren batean parte hartu zuten herritarrek

EUSKARALDIA
HITZEZ EKITEKO GARAIA
2022

eta entitateek mezu elektroniko bat jasoko dute izen-ematea berresteko, hala nahi badute behintzat, edo datuak aldatzeko. Parte-hartzaile berriek, ostera, *euskaraldia.eus* webgunearen bitartez eman dezakete izena.

Azaroan hasiko den ariketari begira berotzen joateko, Euskaraldiaren gune ibiltaria herriz-herri ibiliko da informazioa helarazten eta jarduera ezberdinak egiten. Horrela, urriaren 20an Ermuan egongo da, 26an Soraluzen, azaroaren 10ean Elgoibarren eta 12an Eibarren.

Gune ibiltariaz gain, zenbait ekintza egingo dira Euskaraldia hasi aurretik. Batetik, *#HitzezEkiteko* ekimenak egingo dira Euskal Herriko herrietan eta, horren bitartez, herritarrek beraien lorpenak eta helburuak bistaratuko dituzte paneletan. Bestetik, formazio eskaintza, aholku-saioak eta bestelako tresnak eskainiko zaizkie *ahobiziei, belarriprestei* eta *ariguneak* osatzen dituzten kideei. Eta azkenik, hizkuntza ohiturak eremu digitalean ere jokatzen direlako, *Zapia!* izeneko plaza digitala sortuko dute Instagramen eta Twitterren.

Nolakoa izan da zure esperientzia Euskaraldian?

JON ANDER URAIN

Euskaraldiaren dinamizatzailea - Deba

Euskaraldiaren aurreko edizioetan, *ahobizi* izan naiz. Aurten, ordea, *ahobizi* izateaz gain, Debako dinamizatzaile lanetan ere banabil. Oraintsu, irailaren amaieran, herri batzordea jarri dugu martxan eta abiada hartzen goaz. Entitateek *ariguneak* sortzeko ahalegina egingo dugu urriaren erdialdera arte eta, horrez gain, hemendik aurrera, norbanakoen izen emateari helduko diogu. 2022ko edizio honetan ere, tabernen, saltokien, norbanakoen... hizkuntza ohituretan eragiten saiatuko gara. Hala ere, lagun arteko hizkuntza ohitura aldaketetan jarriko dugu arreta. Horregatik, Euskaraldiaren ariketa ondo egiteko, *ahobizi* edo *belarriprest* norbanakoen rolen aukeraketa egokiak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu, konpromisoak eta jokaerak gaitasunak berak baino garrantzi handiagoa dutela argi utziz.

JOSU LEUNDA

Teknikerreko Euskaraldiko arduraduna - Eibar

2018an gogotsu ekin genion Euskaraldiaren lehen edizioari eta apiriletik hasi ginen Euskaraldiaren dinamikan pixkanaka murgiltzen. Azkenik, Euskaraldiari zegozkion 11 egunetan, guztira 90 lankide inguruk (60 *ahobizi* eta 30 *belarriprest*), paparrean txapak jarri eta euskaraz aritzeko konpromisoa hartu genuen, bai eta neurri handi batean bete ere. Euskaraldiaren bigarren edizioak pandemia bete-betean harrapatu gintuen, eta egoera honek ez zion batere lagundu dinamikari. Batetik, lankideon arteko aurrez aurreko harremanak asko mugatu zituen; eta bestetik, lankideen parte hartzea lortzea ere zailagoa egin zitzaigun, giroa erabat hoztuta baitzegoen. Gainera, *ariguneak* osatzea tokatu zitzaigun eta 11 *arigune* osatu genituen.

IXAKA EGURBIDE

IMH Campus-eko zuzendaria - Elgoibar

Euskaraldia ekintza gakoa izan da gure euskara planaren jarraipenari indarra emateko. Ariketa kolektiboa den heinean, euskaldun aktiboa izatearen kontzientzia areagotu eta hainbat joera apurtzeko balio izan digu. Beste hainbat enpresa eta herritarrekin batera Euskaraldia "praktikatzen" dugula ikusteak babes-sentimendua eta konfiantza eman digu Euskaraldiak dirauen bitartean elkarrizketa elebidunei eusteko, eta zenbait kasutan Euskaraldiaren ondoren ere bai.

Ziur gaude aurtengo Euskaraldiak gure campusa osatzen duten kideen hizkuntza ohiturengan berriro eragin eta euskararen erabileran beste bultzada bat ematen lagunduko digu.

DAVID GOMEZ

Dendaria - Ermua

Ermuko Euskaltzaleen Sarea eta Ermuan Bagara ekimena sortu zirenetik, modu aktiboan jardun dut euskara bultzatzeko helburua duten ekintzetan. Horren harira, Euskaraldiko bi edizioetan ere parte hartu izan dut, *ahobizi* rolean, eta talde eragilean hainbat lan burutu ditut, tartean egitasmoari buruzko informazioa herritarrei zabaldu eta izenak jaso, kalean jarritako informazio puntuetan. Egindako lan horri esker, euskaraz aritzen den jende asko ezagutu dut, eta ondorioz, gero eta gehiagorekin hitz egiten dut euskaraz nik neuk ere. Horrez gain, gure denda *arigunea* izan zen azken edizioan (*arigune* bezala izena eman zuen lehen entitatea Ermuan, hain zuzen ere), eta ordutik nabaritu dut gaztelaniaz hitz egiten ziguten bezero askok euskaraz hitz egiten digutela orain, aldaketa egin dutela.

ROBER RODRÍGUEZ

Euskara ikasle ohia - Mallabia

Euskaraldiko bi edizioetan parte hartu izan dut, betidanik izan dudalako euskara bultzatzeko nahia. *Belarriprest* rolean aritu izan naiz eta, lehenengo edizioari esker, laneko hizkuntza ohiturak aldatu nituen, eta ordutik lankide batzuekin euskaraz hitz egiten dut. Ordutik ere, naturaltasun osoz nahasten ditugu euskara eta gaztelania kuadrillan. Ezezagunekin, aldiz, onartu beharra daukat erosoagoa egiten zaidala gaztelaniaz hitz egitea, oso lotsatia naizelako eta uste dudalako hobeto adierazi ahal izango dudala esan nahi dudana. Puntu horretan gaudenontzat, mugan, ulertu bai baina hitz egiten ausartzen ez garenontzat, Euskaraldia oso mesedegarria da, konfiantza hartzen laguntzen digulako. Dena den, euskararekin tematzea da kontua eta, ez badago benetako interesa, egindako guztia alferrik da.

AINHOA AIZPURUA

Haur Hezkuntzako irakaslea - Mutriku



Euskaraldiko lehenengo urtea Bilboko giroan bizi izan nuen; unibertsitatean nenbilen garaian, hain zuzen ere. Hizkuntzari dagokionez, ezohiko giroa niretzat; ekimen edo ariketa sozial hark sorrarazi zidan sentsazioa, aldiz, benetan arraroa. Euskararen arnasgune (oso herri euskaldun) batetik hara joan eta... bai, nik bizi izan nuen giroari dagokionez behintzat, soinean generaman *belarriprest* edo *ahobizi* ikurra etiketa edo postureo hutsa zela iruditu zitzaidan. Mutrikuarra izanik, eta oso euskaldun giroan bizi izanik, egoera hark erabat amorratu ninduen, euskaldun izatea ez baita Euskaraldian pin bat jartzera mugatzen. Zorionez Mutrikun bizitzeak euskaraz bizitzea ahalbidetzen dit eta aitortu beharra daukat askotan ez naizela ohartzen esku artean dugun altxorraz. Neurri batean behintzat, Euskaraldiak horretaz gehiago jabetzea eta garenaz harro sentiaraztea eragin dit.

LURDES RODRIGUEZ

Administraria - Mendaro

Ariketa interesgarria iruditu izan zait beti Euskaraldia eta aurten ere badut parte hartzeko asmoa. Orain artean, baina, *ahobizi* izan naiz, eta oraingoan *belarriprest* rola aukeratuko dudala uste dut. Lehen hitza euskaraz egiteko joera hori badut, baina eginda ere, ez zidaten nik nahi bestek egiten euskaraz. Euskara gehiago entzun nahi dut, eta pentsatu dut beharbada paparrean *belarriprest* txapa jarrita gehiagok egingo didatela. Ez dakit, baina probatuko dut. Iruditzen zait oraingoan jende gehiagok parte hartuko duela eta badut ilusioa. Aurrekoa ez zen nik nahi bezain ikusgarria izan, egia esan. Ez nuen nahi besteko mugimendua sumatu nire bueltan. Uste dut pandemiak min handia egin ziola ariketari berari, baina orain beste testuinguru batean gaude eta emaitza beste bat izango dela sinetsita nago.

ESTHER CRUZ

HEFA-Ieko Practicum eta GRAL Dekanordea - Soraluze

Hasieratik parte hartu dut Euskaraldian, *belarriprest* rolean. Esan dezaket Euskaraldiak asko laguntzen duela hizkuntza ohiturak aldatzen. Adibidez, norbaitekin beti gaztelaniaz komunikatu bazara, oso zaila da ohitura aldatzea. Aldiz, Euskaraldiari esker, kuadrillako lagun batekin, bakarrik gaudenean euskaraz egiten dugu. Lantokian, lankideen arteko harreman formalak euskaraz izan arren, leku informaletan, kafe-makinaren bueltan, adibidez, gaztelaniara jotzen dugu; Euskaraldia datorrenean, berriz, euskaraz jarduten gara. Beraz, Euskaraldiak eragin handia dauka. Anekdota modura, familian (familia osoaren etxeko hizkuntza gaztelania da) beti bizi izan gara gaztelaniaz, nahiz eta Euskaralditik semeekin euskaraz egiten ahalegindu. Bada, orain gutxi, semeak Maltatik deitu zidan eta hango lagunak euskaraz bizi zirenez, lehen aldiz berak ere euskaraz egin zidan. Halakoetan ikusten da zein inportanteak diren hizkuntza ohiturak.

Itzulera ezin hobea!

ARGAZKIAK ETA TESTUA: ANDER GOMEZ ETA JON AGIRRE.

Bi urtez ospatu ezinik pasa ostean, indartsu bueltatu dira Mesedeetako jaiak. Errekalde zein Gipuzkoa etorbideko bizilagunek harrera aparta egin diete herritarrei: animalia, dj eta su-festa ikuskizunekin plaza burrunbaz betez; eta txokolatada, txorizo zein otarrainxka dastaketekin hurreratu zirenen gosea asez. Herritarrek dantzan eta jolasean, karta eta toka txapelketetan lehian, txosnan jan eta edan... inoizko parte-hartzerik handienarekin erantzun dute. Gainera, aurten, jai-batzordekoek omenaldi hunkigarria egin diete azken urteotan zendu diren bizilagunei eta topa egin dute haiek oroituz.
Elkar gaitzala ba plaza horrek urte luzez!
Zozketako zenbakiak: 1. saria: 607 - 2. saria: 546.

GUTUNAK

Merlin proiektua: zalantza asko

ALBERTO ARIZAGA

Merlin proiektuak ezarpen zabalagoetarako baliagarriak izan daitezkeen formula berriak bilatzen ditu Europako ibai-ekosistemen funtzioak lehengoratzeko, uholdeak murrizteko eta karbono dioxidoa pilatzeko eta errazteko uraren fluxu naturala eta arrainen migrazioa. Era berean, lankidetza bultzatu nahi du ibaia leheneratzetik onura atera dezaketen sektore ekonomikoen artean.

Baina egiten den proposamen bakarra da presak ezabatzea. Sustatzaileek ez dute aurkeztu ekintza horren ondorioei buruzko inolako azterlanik. Nola eboluzionatuko du ibaiaren ubideak? Zein modutan garatuko dira fauna eta flora? Aurreikusi dituzte ibaiaren ibilgua garbitzeko eta mantentzeko lanak? Zer egingo da uholdeak prebenitzeko traba diren oztopo naturalekin? Nolako onurak izango dituzte sektore ekonomikoek? Ba al dago adibide gisa balio digun antzeko beste aktuaziorik?

Nire ustez, proiektu honek bereizi egin behar ditu ibaiaren ubidearen zati urbanoak eta urbanoak ez direnak, eta bakoitzari dagozkion konponbideak ezarri. Ibaiak, presekin batera, Soraluzen ingurumen-egoera berezi bat sortu du, eta, nire ustez, egoera horri eutsi egin behar zaio.

Galdera asko planteatzen dituen proiektu baten aurrean gaude, ibaiaren birsorkuntzari buruzko ikuspegi integralik ez duena, inplikatutako erakundeen arteko jardun ez koordinatua duena, arazo desberdinetarako konponbide berdinak planteatzen dituena eta zalantzak eragiten dituen Plan Orokor baten eraginpean dagoena.

Proiektu honek duen garrantzia dela eta, gai hau udalerri mailako erreferendun baten bidez ebatzi behar da.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA

HAUSNARKETA

Merlin proiektua eta presak

Urriaren 4an, Merlin proiektuaren eta presak botatzeko asmoaren inguruko hitzaldia eskainiko dute Tolarekua aretoan (18:00).

IMANOL HERAS

"Entzunda daukat presak kentzea nahi dituztela, baina ez dakit zeinek, informazioa ez da asko zabaldu. Gustatuko litzaidake ibaia dagoenetan lagatzea, horrela ikusi dut beti eta horrela dut gustuko, baina ekologikoki hobeto bada presak kentzea, ba ken ditzatela".

JOSE LUIS DE LEON

"Ez dut informaziorik baina gaia interesatzen zait. Presak laga egin beharko lituzkete, hartara beti izango dugu hor ura; bestela euri gutxi egiten duenean, siku geratuko litzateke eta akaso usain txarrekin. Bestalde, uste dut ahateek txarto pasatuko luketela presa barik".

MIRARI GARAIZABAL

"Zerbait entzun dut. Gaia interesatzen zait, baina ez presak kentzerik. Beti izan ditugu, herriarendako politak dira eta presak kenduz gero, uraren abiada handitu egingo litzateke, batik bat, ur handiekin. Bestalde, ipin ditzatela arrapalak arrainek presak igotzeko".

ELISA LABAIEN

"Zerbait entzunda daukat, baina gauza garbirik ez. Gaiak ez nau asko arduratzen. Hori bai, herri erdian ibai ederra dugu eta akaso ura egon dadin, presa ondo egongo da, eutsi egiten diolako urari, baina ez dakit seguru. Niri presek ez didate trabarik egiten".

PUNTUA

LEIRE PEÑALBA

Eskisitoegiak?

Beti berdina entzuten. Ikasi. Berdin dio, erdi edo goi mailako ziklo bat, gradu bat (bi badira hobeto), masterrak, doktoretza, ahal dituzun hizkuntza guztiak… Guzti hauek beharrezkoak direla entzun dugu gure bizitzan zehar; baina lan mundura salto egiten dugun momentuan, zer?

Gaur egungo errealitateari erreparatzen badiogu, oso ohikoa da hurrengo egoerak ikustea edota lehenengo pertsonan pairatzea: praktika kontratu amaigabeak, soldata lotsagabeak (soldata duenarenarentzat, noski), beka kontratu faltsu eta abusiboak…

Gainera, denetik entzun behar izan dugu, eskisitoegiak garela (ez lan arloan bakarrik), baita lanik egin nahi ez dugula ere. Baina alperrak edonon eta adin guztietan daude.

Esan beharra dago, lan prekarietatearen ondorioetako bat emantzipazioa eza dela; lan duin bat ez baduzu ezingo zara etxetik irten.

Egia galanta, bai.

Ez dakit nola konpondu dezakegun gizarte bezala egoera hau, ez da nire lana ere ez, horretarako baitaude goiko mandu eta politikariak, baina uste dut gure gazteak hobeto zaindu beharko lituzketela (gintuzketela), batik bat zaintza falta izugarria sumatzen baitut.

Lanerako joan-etorriak autorik gabe

Azken urteotan autoa izan da garraiobide nagusia edozein desplazamendu egiteko. Joera hori baina, aldatzen hasi da. Gero eta ohikoagoa da beste garraiobide batzuk erabiltzea. Erreportaje honek lanerako bidea beste garraiobide batzuen bitartez egiten duten bost herritarren testigantzak jaso ditu.

Testua eta argazkiak: **Ubane Madera, Egoitz Unamuno eta Fernan Oregi.**

XX. mendean hasi eta azken urteotara arte, auto partikularren kopuruak eta erabilerak etenik gabe egin dute gora gure inguruan; familia askotan ohikoa bihurtu da bakoitzak bere autoa izatea eta edozein desplazamendutarako erabiltzea, distantzia laburra izan arren. Dirudienez baina, joera horrek joa du goia. Gasolinaren prezioa garestitzeak, inflazioak, ingurumen krisiarekiko kontzientziak eta beste zenbait faktorek eraginda, herritarrak garraiobide merkeago eta garbiagoen alde egiten hasi dira gero eta gehiago. Bizikleta da horietako bat. Pandemia garaian eta ostean, bizikleten salmentek sekulako gorakada izan dute eta azken aldian gero eta ohikoagoak dira bizikleta elektrikoak, baita patinete elektrikoak ere. Garraio publikoari dagokionez, administrazioak oraintsu tarifak merketu izanak herritar asko animatu ditu autobusa edota trena erabiltzen hastera. Bestalde, badira lehen bezala, orain ere, bidea garraiobiderik zaharrenean egiten dutenak ere, alegia, oinez. Ondorengo erreportajean, lanerako bidea autorik barik egiten duten bost herritarren testigantzak jaso ditugu, eta garraiobide bakoitzak dituen abantailak eta topatzen dituzten zailtasunak aipatu dituzte.

Zailtasunak

Zailtasunen artean, herriaren orografia aldapatsuarekin batera, bi nabarmendu litezke: autobus zerbitzuaren hutsuneak eta Maltzagarako bidegorriaren falta. Autobus gehiago izateak eta Maltzagarainoko bidegorria izateak asko erraztuko luke bestelako garraiobideen erabilera.

Soraluzetik Arrasateko lantokira bizikletan

Bidegorrian, bizikletan lanetik bueltan zetorrela erantzun zituen Oiher Arantzetak (Soraluze, 1973) erreportajerako galderak. Orain dela 10-12 urte hasi zen Arrasateko lantokira bizikletan joaten, kirola egitearren. "Gaztetan kirol asko egiten nuen, baina gero, umeekin-eta ez nuen astirik, baina kirola egiteko beharra sentitzen nuen. Azkenean, lanera bizikletan joaten hasi nintzen kirola egiteko era erraz bat zelako".

Oiher Arantzeta bizikletan, irailaren 23an, barikua, bidegorrian.

200 kilometro astero

Bere aitak orain dela 25 urte oparitutako bizikleta batekin, Fagor Automationeko maillota jantzita, fokua aurrean eta atzean, eta kaskoan frontala dituela joaten da lanera Arantzeta, udan zein neguan. "Neguan ateri bada bai, bestela ez, ez daukat euritarako ekipamendu egokirik; horixe izango da nire hurrengo inbertsioa, negurako bizikleta botak. Gainera, aurten Olentzerori gutuna idatzi behar diot, ea bizikleta berri bat ekartzen didan", dio Arantzetak. Bizikleta normala nahiko luke, ez elektrikoa. "Elektrikoa aukera bat da, ondo dago, baina oraingoz beharrik ez daukat eta ahal dudan bitartean nahiago dut horrelaxe egin".

Bidegorritik joaten da lantokira, bueltatu, berriz, zati handiena errepidetik, “arratsaldeetan jende asko egoten da bidegorrian eta elkarbizitza zaila da, baina askoz ere erosoagoa da bidegorria”.

Arantzetak horrela egiten ditu 200 kilometro astero, kirol mordoa, argi dago, baina beste bentaja batzuk ere topatu dizkio motor bako garraiobideari.

Bentaja asko

Bistakoena bentaja ekonomikoa da. "Oraingo prezioekin astean 80 euro beharko nituzke gasolinatarako; autoaren mantenuan ere aurrezten dut". Debagoieneko auto-ilarak ere aurrezten ditu. Baina gainera,

KIROLA EGITEN DU, DIRUA AURREZTEN DU ETA GAINERA PUNTUAK JASOTZEN DITU OPARI

Arantzetak puntuak irabazten ditu. "Orain bizpahiru urte Fagor eta beste enpresa batzuk lanera joateko autoa ez den garraiobidea bultzatu nahian hasi ziren. Ciclo Green aplikazioan parte hartzen dute. Aplikazio horrek lanerako ibilbidea zelan egiten den grabatzen du eta, horren arabera, enpresak puntuka saritzen du lanera autoan ez (konpartituta bada, bai) doana. 300 puntuko 10 euroko bonua ematen du tokian tokiko komertzioetan gastatzeko, bus txartelak birkargatzeko edo dohaintzan emateko Mundukidera, Emausera...

Azkenik, Arantzetak dioenez, "gero eta jende gehiago" ikusten du lanera oinez zein bizikletan joaten, "baita Plazentziakoak ere".

"Etxerako bidean gozatu egiten dut"

Mertxe Arenazak hirurogei urte pasata ditu eta Mesedeetako Amaren egoitzan egiten du lan. Duela hiru urte, erabaki zuen lanerako bidea patinetean egitea: "Nik oinez egin izan ditut joan-etorriak eta ez da distantzia oso luzea, baina niri askotan neketsua egiten zait lanetik oso nekatuta ateratzen naizenean, batez ere udan, bero egiten duenean... Orduan pentsatu nuen: 'ba agian patinete batekin hobeto moldatuko nintzateke', eta etxekoek bat oparitu zidaten ".

Laster ikasi zuen patinetean ibiltzen: "Poligonoan egin nituen entrenamenduak eta segituan moldatu nintzen. Orain patinetean oso gustura joaten naiz. Batez ere etxerako bueltan. Gozatu egiten dut".

Mertxe Arenaza lanetik bueltan.

Euria eta aldapak muga

Patineteak baditu bere mugak. Esaterako, Mertxek ateri denean bakarrik hartzen du patinetea, euria diharduenean ez: "Euriarekin ez naiz seguru sentitzen eta gainera oso deserosoa da, goitik behera bustitzen zarelako: arropak, antiojoak… Berdin dit hotz ala bero egin, baina ateri dagoenean bakarrik erabiltzen dut".

Gainerakoan, egiten duen ibilbidean ez du arrisku berezirik sumatu: "Gabolats gainetik saihesbidean zehar joaten naiz, normalean Etxaburuetatik behera jaitsi eta herri barrutik egoitzaraino, eta bueltan berdin, Gabolatsen igogailua hartuta. Egia esan ni ibiltzen naizen orduetan ez da egoten trafiko eta jende askorik eta lasai joaten naiz. Hori bai, kaskoa beti eroaten dut jantzita".

Bateriari dagokionez, astean behin kargatzen du: "Hirurehun euro inguru balio duen patinetea da. Arratsaldean ipintzen dut etxean kargatzen eta gauerako kargatuta egoten da, hiru-lau ordu behar izaten ditu". Gero astebete inguru irauten dio. Potentziari dagokionez, patinetean aldapak ere igotzen ditu baina ez denak: "Egoitzako aldapa ez du igotzen eta igogailua hartzen dut. Ezozibidekoa bai, hura igotzen du. Niretzat nahikoa".

ENTRENAMENDUAK POLIGONOAN EGIN NITUEN ETA SEGITUAN MOLDATU NINTZEN.

Hasieran lotsa

Aitortu du hasieran "lotsa" eman ziola patinetean ibiltzeak: "Pentsatzen dut ez dela oso normala nire adineko emakume bat patinetean pasatzen ikustea eta hasieran lotsa pixka bat ematen zidan. Gero beste lankide gazteago bat ere hasi zen patinetean eta bromak egiten ere hasi ginen. Orain oso gustura joaten naiz".

Bizikleta elektrikoan eta autobusean

Aspaldi laga zion Domentx Uzinek lanera kotxez joateari, duela 8 bat urte-edo. Autoaren gastuengatik eta buruko minengatik laga zion hari: "Nituen autoak zaharrak ziren, gastu asko nituen -garajea, gasolina, asegurua…- eta horrez gain, Arrasateraino joan, han aparkatzen ez dakit zenbat denbora… Azkenean goia jo nuen eta autobusean joatea erabaki nuen".

Uzin gustura ibili da eta dabil autobusean, nahiz eta autoan baino denbora gehiago behar duen. "45 minutu inguru tardatzen da autobusean eta autoan ordu erdi, baina hara ailegatzen zara, autobusetik jaisten zara eta listo. Lanerako, behintzat, autobusean askoz hobeto", azpimarratu du.

Domentx Uzin bizikleta elektrikoarekin, frontoian.

Bidegorriaren garrantzia

Uzinek ez dio guztiz laga autobusean joateari, baina pandemia bukatu zenetik beste garraiobide bat ere badarabil: bizikleta elektrikoa. "Entzunda neukan norbait horrela joaten zela lanera, beste batek Arrasaten laga zidan bizikleta elektriko bat probatzeko eta gustatu egin zitzaidan". Bizikleta arrunta baino errazago ikusi zuen elektrikoa erabiltzea: "Ez nago normalean bizikletan ibiltzera ohituta eta ez ailegatzeko beldurra neukan".

Dagoeneko urtebete darama horrela eta onura asko topatu dizkio garraiobide berriari. Gustukoen duena da "maskara barik joatea, autobusean maskararekin asko itotzen" baita. Bestalde, oso lagungarri zaio estresari aurre egiteko: "Estresarekin ahaztu egiten zara, askoz ere kontaktu handiagoa duzu paisaiarekin. Bidegorritik pasatzean behiak, astoak edo hegaztiren bat ikustea demasa da. Garbitu egiten zara, haizea arnastu, zerua ikusten duzu izartsu Mekolalden…". Bestalde, Uzinek aitortu du bidegorria erabakigarria izan dela berak bizikleta elektrikoa erabili ahal izateko, "errepidetik ez nintzateke joango", dio.

BIDEGORRIRIK EZ BALITZ, EZ LITZATEKE BIZIKLETAN LANERA JOANGO

Gomendatzeko modukoa

Bizikletari ikusten dion eragozpenik handiena hotza da: "Bazkalostean gustura joaten naiz, baina 21:00ak inguruan edo beranduago bueltatu izan naiz eta arazoa hotza da. Dena den, esperientzia moduan ez du zerikusirik. Hortaz, batzuetan autobusean eta bestetan bizikletan joango naiz lanera". Beste eragozpen txiki bat ere atzeman du: "Frontoitik, eliza ostetik arrapala dago Estaziñora, baina bidean hiruzpalau eskailera daude. Haiek gabe, frontoitik zuzenean joan ahalko litzateke bidegorrira". Bestela, erabat gomendatuko luke Arrasatera bizikletan joatea, "ordubeteko paseoa egin eta burua esnatzeko", batik bat.

"Askoz ere hobeto oinez"

Xabier Lizarraldek (Soraluze, 1963) oinez egiten du Carmelo Mendizabalerainoko joan-etorria, orain dela 20 urtetik, "kale erdira bizitzera joan nintzenetik. Eguraldi txar-txarra dagoenean etorri izan naiz kotxez, baina txar-txar-txarra dagoenean, bestela beti oinez".

Askoren ustearen kontra, autoak erosotasuna eman baino erosotasuna kendu egiten ziolako hasi zen ibiltzen: "Autoarekin hasi nintzen lanera etortzen, baina gehiago kostatzen zitzaidan kotxea hartu eta gero hura aparkatzen ibiltzea oinez etortzea baino. Konprobatuta daukat, goizean etxetik irten eta auto bila joaten egiten nuen denboran ia tailerrean nagoela".

Xabier Lizarralde Txurrukenen, lanetik bueltan, martitzenean.

Oinez bizkorrago

Denbora-kalkulua ere eginda dauka hori baieztatzeko, ordu laurden besterik ez du behar etxetik irten (udaletxe ondotik) eta tailerrera ailegatzeko, "gehienez jota hogei minutu, lasai joanda. Bidea ona da, ia ez dago aldaparik eta espaloitik zoaz; azken zatia da arriskutsuena, batez ere neguan ilunago dagoenean, bestela oso ondo dago, ez dago arazorik eta edozeinek egiteko moduko bidea da".

Egunean ordubete

Erosoago izateaz aparte, Lizarralderendako osasuntsuagoa ere bada lanera joateko autoa ez erabiltzea. Egunean lau buelta egiten ditu tailerrera, beraz, joan-etorri horretan ordubete pasatzen du egunero oinez eta, dioenez, igarri egiten du: "Gorputzean igarri egiten da, goizean jaikitzen zara, oinez zatoz lanera eta burua garbitu egiten da bidean; gainera, hotz egiten duenean bizkorrago zatoz eta energia gehiagorekin ailegatzen zara. Bestalde, geroz eta gehiago kostatzen zaigu ibiltzea eta ibili beharra dugu, ze laga eta laga…"

Gero eta gehiago

20 urtean horrela ibili eta gero, Lizarraldek argi dauka horrela segitu nahi duela. "Gustua" hartuta dauka oinez ibiltzeari, osasunari on egiten dio, denbora aurrezten du eta ekonomian ere igartzen du bentaja.

EROSOAGO, OSASUNTSUAGO ETA EKONOMIKOAGOA EGITEN ZAIO OINEZ JOATEA

Azpimarratu duenez, Soraluze moduko herri txikietan, "autoan ibiltzea gastua da; autoa arrankatu eta tailerrerako bidean berotu ere ez da egiten, eta azkenean izorratu egiten da, bateria, ihes-tutua… Gainera, aparkatzerakoan, goizean sarri ez dakizu autoa non lagata daukazun, eguerdian ere oso zaila izaten da aparkatzea… askoz ere hobeto oinez".

Azkenik, kontatu du azken urteotan gero eta gehiago direla, bera bezala, tailerrera oinez joatea erabaki dutenak.

"Autobusean bidaiatzea oso merkea da"

Oihana Mendizabalek Mendaron lan egiten du eta irailean ekin dio lanerako joan-etorriak autobusean egiteari: "umea eskolara doanez, asti gehiago dut eta erabaki nuen autoan beharrean autobusean joatea". Goizeko zortziak hogei gutxitan hartzen du autobusa Soraluze-Ondarroa lineakoa eta zortzietarako heltzen da Mendarora.

Arratsaldean, bueltarakoan, bide luzetxoagoa egin behar izaten du: “Bostak eta laurdenetan ateratzen naiz lanetik, baina seiak eta laurdenak arte ez dago autobus zuzenik Soraluzera bueltatzeko. Eibarrerako autobusa hartzen dut, Mallabira doana, eta gero han linea aldatzen dut eta Arrasatera doana hartzen dut. Goizekoarekin konparatuta, arratsaldean ordu-erdi bat galtzen dut, baina astia daukat eta moldatzen naiz. Dena dela, nire ustez ez dago eskubiderik bailarako ospitalea dagoen herrira autobusak bi ordutik behin ipini eta arratsaldean egon behar lukeen orduan bueltarako autobusik ez izateko”.

Abantailak: dirua aurreztea, lasaitasuna...

Hutsuneak hutsune, autobusean joateari abantaila asko ikusten dizkio Oihanak, lehena, ekonomikoa: “Ez dauka zer ikusirik. Autoan ibilita hilabetean depositu bat gasolina gastatzen banuen hilero, orain egunean euro bat baino gutxiago gastatzen dut, 0,48 bidaiako, norbere eskualdeko herrietan merkeagoa delako eta gainera hogeita batgarren bidaiatik aurrera merketu egiten da. Orain, garraio publikoan bidaiatzea oso merkea da”.

Oihana Mendizabal lanera bidean.

Onura ekonomikoarekin batera, beste abantaila batzuk ere ikusten dizkio: “Lehen,

"ORAIN BIDAIA APROBETXATZEN DUT: PENTSATZEKO, MUSIKA ENTZUTEKO (...)"

autoan bakar bakarrik egiten nuen bidea, orain jendearekin topo egiten dut agurtzeko edo berba egiteko. Eta lasaitasuna ere bai. Orain bidaiako denbora aprobetxatzen dut niretzako: pentsatzeko, musika pixka bat entzuteko edo zeozer irakurtzeko. Eta ez autoa hartu antxintxika eta herrira iritsi jakin barik Elgoibarren semaforoa gorrian edo berdean pasatu duzun… Gainera, geltokia etxetik hurrago daukat garajea baino eta goizetan lantokiaren pare parean lagatzen nau. Goizetan, autoan baino denbora gutxiago behar izaten dut heltzeko. Abantaila asko dira eta merezi du”.

Toñin Galeano eta Manu Caballero Ezoziko Futbol Zelaian, domekan.

"Irabazi nahi digutenek borroka egin beharko dute"

TOÑIN GALEANO ETA MANU CABALLERO ENTRENATZAILEAK

Toñin Galeano (Elgoibar, 1973) eta Manu Caballero (Soraluze, 1990) dira Soraluze Futbol Taldeko Erregional mailako entrenatzaile berriak.

Toñin Galeano eta Manu Caballero entrenatzaileek azpimarratu dute lehenengo lortu beharrekoa Sora ekipo lehiakorra izatea dela.

Lehen partida irabazi egin zuen Sorak. Garrantzitsua da hori, ezta?

Bai, horrek beti ematen dizu konfiantza apurtxo bat gehiago. Aurre-denboraldia luzea izan da, ondo egin dugu lan eta ea zorterik dugun. Ondo hastea beti dator ondo.

Zelan ikusi zenuten ekipoa?

Denboraldi honetan etxekoen eta gazteen aldeko apustua egin dugu. Aurre-denboraldian zalantza geneukan ea taldeak maila emango zuen. Oraingoz oso pozik gaude, uste dugu nahiko lehiakorrak izango garela. Talde gaztea da, hobetzeko marjina handiarekin.

Gazteak bai, baina beteranoak ere hortxe ikusi ziren, dena ematen…

Bai. Nahasketa horrekin uste dugu taldea lehiakorra izango dela. Gero eta argiago dugu gauzak lor ditzakegula, partidak irabazi eta guztion gustuko helburuak jarri.

Zuek ere berriak zarete, zelan?

(Manu) Ondo. Nik jokalari guztiak ezagutzen ditut. Herriko jendeak osatutako ekipoa da, guztiek elkar ezagutzen dute. Dauden kanpotar apurrek pare bat urte badaramatzate hemen. Talde jatorra da eta aldagelan giro ona dago.

(Toñin) Ni urte askoan ibili naiz hemen jokalari modura, jubenil mailan eta Erregional bigarren mailatik lehen mailarako tartean. Ondoren, entrenatzaile izan nintzen urtebetez. Horregatik, kariño handia diot Sorari. Aukera eman zidaten hona etortzeko hainbat urtez Iruñean bizitzen egon ondoren; nire ustez, hasteko leku ona da, zentzu horretan, oso pozik nago.

Gainerako ekipoak ezagutzen dituzue?

Ez. Maila berria da eta Sora ekipo gaztea. Lortu beharreko lehen gauza da ekipoa lehiakorra izatea eta gero irabazten ikastea. Oraingoz, oso pozik gaude, irabazi nahi digutenek borroka egin beharko dute hori lortzeko.

Besterik nahi baduzue gaineratu…

Jendea animatu dadila partidak ikustera. Beti eskatu izan da ekipoan herriko jendea egotea eta aurten inoiz baino gehiago dago, gazteak, gainera. Lehen partidan giro ona egon zen; ea denboraldian zehar horri eusterik dugun.

"LORTU BEHARREKO LEHEN GAUZA DA EKIPOA LEHIAKORRA IZATEA ETA GERO IRABAZTEN IKASI"

Antzerkira joateko garaia

Udalak lau antzezlan programatu ditu udazkenerako, Antzerki garaia izeneko zikloaren barruan.

Antzerki garaia zikloaren barruan lau antzezlan eskainiko dituzte: bi amateurrak eta gazteleraz: *Tuppersex* (joan zen barikuan eskaini zuten) eta *Los olivos pálidos* eta beste bi, profesionalak eta euskaraz: *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi* eta *Altsasu*. Emanaldi guztiak ostiraletan izango dira, arratsaldeko 20:00etan (sarrerak 5 eta 10 eurotan).



Hiru kortse (...) antzezlana.

Urriaren 7an: *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi*.
Hiru emakume kanpai-hotsekin batera puntual batzen dira merienda mahai baten inguruan. Tisana, pasta, azukre eta pastelitoz betetzen dituzte gorputzak, beraien egunerokotasunaz berba egiten duten bitartean.

Urriaren 21ean: *Altsasu*
2016an Altsasun gertatua, antzerkira eroana.

Azaroaren 4an: *Los olivos pálidos*
Federico Garcia Lorca eta Bernarda Alba pertsonaia inspiratzen duen Francisquitaren arteko enkontrua.

‘Irupe, Ilargia ukitu nahi zuen neskatila’

Urriaren 16an, domekan, ‘Irupe, ilargia ukitu nahi zuen neskatila’ antzezlana taularatuko dute, familia giroan ikustekoa. Obra poetikoa da, neskato batek bere ingurunearekin duen loturari buruzkoa. "Irupe jatorrizko basoan bizi zen, oso zoriontsu, baina egun batez dena aldatu zen, gizon batzuek basoari su eman ziotelako.Gauero ilargia ukitzen saiatzen da, bere desioa bete dadin: mendia berriz mendi izan dadin nahi du. Beteko al du ilargiak Iruperen nahia?". Antzezlana, 17:30ean eskainiko dute antzokian eta sarrerak hiru eurotan salduko dira.

Bestalde, nabarmentzekoa da antzezlanaren musikaren euskarazko bertsioa Domentx Uzin eta Arianne Unamuno plazentziatarrek ekoitzi dutela.

Musika eskolako bekak emanda

Soraluzeko Musika Eskolak esleitu ditu aurtengo ikasturterako zituen lau bekak. Horietatik bi beka 7 urtetik beherako umeendako dira, Musika eta Mugimendua ikasketak egiteko. Eta beste biak, 7 urtetik gorakoendako, Musika Kantuz ikasketak egiteko. Soraluzeko Udalaren eta musika eskolaren artean finantzatzen dituzte beka horiek.

'Tipularen sehaska kanta" antzokian

Martitzenean, ‘Tipularen sehaska kanta’ dokumentala proiektatuko dute antzokian (20:00etan). 1942an kartzelan hil zen Miguel Hernandez poeta espainiarraren "Nana de la cebolla" olerkitik abiatuta, analogia historikoa egiten du filmak: "1936ko gerran preso hiltzeak zentzurik ez bazuen, zentzurik ba ote du gaur'".

Ivan Araujo Oreka Arten

Oreka Art Galeriak hileroko arte eskaintzarekin jarraitzen du. Alberto Ibañezen ostean, urriaren 7tik aurrera eta azaroaren 2ra bitartean, Ivan Araujo artista madrildarraren ‘Cosmogonias’ erakusketa izango da ikusgai. Bertan pintura eta grabatuan trebatua den Araujoren hainbat margolan ikusi ahalko dira.

Tornuarekin txistuak

SAPA-TIK BERRESKURATUTAKO TORNU BATEKIN TXISTUAK ETA MAKILAK EGIN DITU

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU
ARGAZKIAK: U.M. ETA ENEKO ALVAREZ

17 urterekin, zazpi txistu fabrikatu ditu Eneko Alvarez Basaurik (Soraluze, 2005). Dena eskuz: txistuak, txisturako pieza osagarriak, baita txistuak fabrikatzeko erabili beharreko tresnak ere.

Haginez, ebanoz eta ezpelez egin ditu. Dotore ematen dute. Doinua ere ondo afinatuta ematen dute, musika eskolako txistuko irakasle Domentx Uzinek eta txistu-afinatzaileak hala baieztatuta.

Eneko Alvarezek bi urte eman ditu txistu-fabrikazioaren prozesuan, aitaita Jose Angel Basauriren laguntzarekin eta Aitor Amorren tailerreko tornua baliatuta, SAPAtik "erreskatatutako" tornu bat.

Hain zuzen, tornu horretan eta gazte soraluzetarraren grinean dago guztiaren abiapuntua.

Tornulari izan nahi zuen

"Beti izan dut kuriositatea tailerrekiko. Aitaitarekin joaten nintzen edozein tailer ikustera, barrura begira, tornua eta tornuari buruzkoak entzuten. 8-10 urterekin tornulari izan nahi nuen", kontatu du Alvarezek. Handik lau urtera bete zuen nahi hori, Aitor Amorrek tailerreko ateak zabaldu zizkionean bertako tornua erabil zezan.

Alvarez "pixkanaka" hasi zen tailerrera joaten, "tornuari puesta a punto" egitera hasieran. Jose Mari Mendia ere batu zitzaion, bera zen-eta Amorren tornua SAPAn maneiatzen zuena. Mendia eta Basauri tornulari adituekin ikastaro

Eneko Alvarez Basauri berak egindako txistuekin eta makilekin, Aitor Amorren tailerrean.

trinkoa egin eta ederki ikasi zuen Alvarezek makina erabiltzen. "Hasieran, oinarrizko operazioak egin nituen, beldurrez, baina konfiantza hartzen joan nintzen, gero probak egiteko balio izan zuten piezak eginez. Ondoren, tornua bera konpontzeko piezak eginez ikasten joan nintzen".

Tornua eta txistua lagun

Bestalde, 10 urte zituenetik txistularia ere bada Eneko Alvarez, "Motxatarren laugarren belaunaldiko txistularia" dio. Horren jakitun, behin Amorrek txistu bat egiteko xaxatu zuen. Besteak, hasieran ezetz, baina gerora, baietz esan zion. "Kostata", Jose Angel Basauri ere konbentzitu zuten bidelagun izateko, nahiz eta hura sinistuta egon txistua ez zela ondo irtengo, gaztetan berak esperientzia txarra izan baitzuen asmo berarekin. Hala ere, ekin zioten. "Erronka zailenetariko bat txistuari alderik aldeko zuloa egitea izan zen. Hasieran ez genuen lortzen, zuloak desbideratu egiten zitzaizkigun, baina saio asko egin ostean, hori egiten ere ikasi genuen. Beste guztia txistu fabrikatzaileen -Gancedo, Keller, Ezpela, JAI Txistuak…- txistuak begiratzen eta kopiatzen eta, ahal zena, gure gustura egokitzen egin genuen. Aitaitak badu 100 urte baino gehiago dituen txistu bat, hari ere egin genizkion begiratuak. Ordu mordoa pasa genituen neurriak hartzen, planoak egiten…Orain, txistuak egiten badakigula, bat egiteko 20 bat ordu behar ditugu, ba hasieran…".

Emaitza ikustean berotu

Baina lan handi horrek fruituak eman zituen eta lehen txistuak ondo atera zitzaizkien itxuraz; soinua ere ateratzen zuten. "Ez zen soinu ona, baina bai zein pieza jotzen zen asmatzeko bezain bestekoa. Hor animatu ginen txistu gehiago egitera. Aitaita ere berotu zen eta Gabonetan txistuak egiteko ebano pusketak oparitu zizkidan. Bat egin genuen, ondo irten zen eta gainera bidean gauza asko ikasi genituen hurrengoetarako; ondoren, erremintak egin genituen txistuak fabrikatzeko, dozena erdi inguru egin nahi genituelako" kontatu du.

Orain makilak

Baita egin ere. Hiru txistu bukatuta daude, beste lauei azken brilloak falta zaizkie. Zazpi txistuetatik bi hartu ditu Alvarezek. Bat Amorri oparitu dio. Gainerakoak gordeta daude,"saldu ezin dira egin, ez dago horrekin negozioa egiterik, beraz, norbaitek fabore moduan-edo eskatuko balu, ikusi egin behar". Txistuez gain, danbor-danbolinerako makilak ere fabrikatu ditu, haiek ere diseinu berezikoak. Orain, mendi-makilekin hastea du buruan, tornuan hartutako jakintza bertan aplikatzeko asmoarekin.

Amor, Basauri eta Alvarez.

100 urte pasa dituzten txistua eta makila.

Eneko Alvarez tornuan.

Opor ostean pilak kargatuta, ikasturte berriari hasiera ezin hobea eman diogu elkarbizitza sustatzeko ekintza piloa antolatuz.

Eskola lehen egunean talde kohesioa lantzeko jolas kooperatiboetan jolastu ginen.

Ezozira irteera ere egin genuen eskolako HH5etik LH6ra bitarteko ikasleok. Eguraldia lagun, goiz zoragarria pasatu genuen.

Hurrengo egunean, jai-giroan eta elkarlanean, herri-kiroletan parte hartu genuen.

Hona hemen aurtengo ikasturteko BAT taldeko kideen argazkia, guztion artean Eskola Bullying gabeko gunea izatea helburu dugularik.

ZORION AGURRAK

Afrika Mendez Goyogana
Uztailaren 19an, 4 urte. Zorionak politxori! Jarraitxu zure irribarriakin gure etxiak alaitzen! Etxeko guztien partez.

Sara eta Maren Aldazabal Castillo
Abuztuaren 21ean eta irailaren 25ean, 5 eta 9 urte. Zorionak etxekoen partez! Gure etxeko bi sorgintxoei.

Oinatz eta Eire Beretxinaga Heriz
Irailaren 4an eta 23an, 11 eta 7 urte. Zorionak bikote! Segi zuen irrifarrakin gure bizitzak alaitzen. Muxu handi bana etxekuen partez.

Ander Pastoriza
Irailaren 21ean 18 urte. Zorionak, guapo!

Iñaki Larrañaga Macias
Irailaren 7an 55 urte. Zorionak Iñaki!!!

Peru Soriano Sebal
Irailaren 27an 6 urte. Zorionak txapeldun! Ondo pasauko dou zure egunian. Asko maitxe zaitxugu. Patxo potolo bat familia guztian partez, batez be Ibaien partez.

Markel Atxotegi Arruabarrena
Irailaren 17an 3 urte. Zorionak txapeldun! Primeran ospatuko dogu zure urtebetetzia!! Asko maitxe zaitxugu. Etxeko danen partez.

Julen Aristi Sanchez
Irailaren 5ean 4 urte. Zorionak maitxia! Super ondo pasatuko dogu zure urtebetetzian ! Patxo pillua familixa guztian partez !!!

JAIOBERRIAK

Mara Carretero Mendo
Abuztuaren 7an jaio zen

OHARRAK

Basarri eta Uztapide

Atxuri eta Errekaldeko jaiekin lotutako argazkia helarazi du Ignazio Pintado Erzillak. Azpimarratu du bertan azaltzen direla Basarri eta Uztapide bertsolariak prest bertsotan hasteko. “Kosta da baina bilatu zen” dio.

Emakumea lan bila

Emakumea eskaintzen da garbiketa-lanak egiteko edo etxean laguntzeko: 631 62 46 96.

Emakumea lan bila

Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko zein etxeko-lanak egiteko. Jardun osoan zein orduka. Eskarmentua eta erreferentziak ditu. 604 12 01 04.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak
Jaime Ramon Aristi Artolazabal
Margarita Perez de Heredia Gallastegi
Jose Luis Perez Perez
Teresa Bouzas Delgado
Maria Victoria Velasco Martinez de Sarria
Carmelo Mendizabal Barrenetxea
Ofelia Larrañaga Zubiaurre
Rafael Guenetxea Beiztegi

Jaiotakoak
Mara Carretero Mendo

ESKELAK

URTEURRENA

Carmelo Mendizabal Barrenechea

2022ko abuztuaren 3an hil zen, 94 urte zituela.

Orain arte joan zara bidean gurekin
aurretik argi egiñez zure urratsekin
Gugan utzi duzun oroimen horrekin
bidea egingo dugu bildu arte elkarrekin

Etxekoak.

ESKELA

Carmelo Mendizabal Barrenechea

2022ko abuztuaren 3an hil zen, 94 urte zituela.

Ekiñez egindako bizitza eraman duzuna
aurrera egiteko griña erakutsi diguzuna
guretzat eredu izan zeralako
Eskerrikasko Carmelo

Carmelo Mendizabal S.L.

II. URTEURRENA

Mikel Iñurrieta Arana

2020ko uztailaren 5ean hil zen, Soraluzen, 63 urte zituela.

Hutsune handia gure artean baina elkarrekin aldi berean.
Izugarri maitxe zaitxugu.

Etxekoak.

ESKELA

Marga Perez de Heredia Gallastegi



2022ko irailaren 18an hil zen, 71 urte zituela.

Borroka-kide eta bidelagun izan zara. Gure bidea argitzen jarraituko duzu.

Aitortzaz eta esker onez, Soraluzeko Mugimendu Feminista.

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra

IZEN-EMATEA zabalik

Entitateak

Norbanakoak

EUSKARÁLDIA

Antzerki garaia



HIRU KORTSE, AZUKRE ASKO ETA BRANDY GEHIEGI
Kamikaz kolektiboa & Ttak teatroa

EGUNA
Urriak 7, ostirala
ORDUA
20:00
EGILEA
Amaroay Gaztañaga, Erika Olaizola, Iraia Elias
ZUZENDARITZA
A. Gaztañaga, E. Olaizola, I. Elias
ANTZEZLEAK
A. Gaztañaga, E. Olaizola, I. Elias
HIZKUNTZA
Euskara
SARRERA
10 €



ALTSASU
La dramática errante

EGUNA
Urriak 21, ostirala
ORDUA
20:00
EGILEA
Maria Goricelaya
ZUZENDARITZA
Maria Goricelaya
ANTZEZLEAK
Nagore Gonzalez, Egoitz Sanchez, Aitor Borobia, Ane Pikaza
HIZKUNTZA
Euskara
SARRERA
10 €

LOS OLIVOS PÁLIDOS
La Red Teatro

EGUNA
Azaroak 4, ostirala
4 de noviembre, viernes
ORDUA
20:00
EGILEA
Juanma Cano
ZUZENDARITZA
Mikel Areitioaurtena
ANTZEZLEAK
Maite Lorenzo, Juanma Cano, Nera Arriznabarreta, Enrique "El Vaka"
HIZKUNTZA
Gaztelera
SARRERA
5 €

SORALUZE HIZI 2030
SORALUZEKO UDALA
Gipuzkoako Foru Aldundia
OIAINI KULTURA